

ZUMAIAN ZER GERTATZEN DEN KONTATZEN DUEN HILABETEKARIA

korrika

2003ko APirilA,
110. ZENB. DOHANIK



SANTELMOETARA KORRIKA!!

E G U R A L D I O N A K G O R D E G A I T Z A L A



baleike

O T E I Z A

T

*iriki, tauki, tauki,
mailuaren hotsa.
Tiriki, tauki, tauki,
mailuaren hotsa.
Hamasei harri lantzen
ari da Oteitza.
Ai, oi, ai,
ari da Oteitza.*

Bitoriano Gandiaga poeta zoragarriak idatzitako poesia baten hasiera da. Hil berri zaigun Jorge Oteiza eskultore handia Arantzazuko apostoluak egiten ari zen garaian idatzitakoa da. Egunero ikusten zuten elkar poetak eta eskultoreak, han Arantzazun. Apirileko hasierako egunetan hil zaigu Oteiza. Haren mailuak ez du hots gehiago aterako, ezta harririk landuko ere. Ez bat, eta ez hamasei. Ai, oi, ai, hil zaigu Oteiza. Jenio biziko gizona zela diote hura ezagutu zutenek. Pentsatzen zuena zuzen aurpegiratzen zuen horietakoa. Euskal Herriak bereak dituen ohiturak, bizimoldeak lotsarik gabe aldarrikatu eta defendatu zituen. 1963an argitaratu zuen *Quosque tandem* liburua da aldarrikapen horien adierazgarri. Hamaika obra zoragarri egin zituen.

Hutsuneak omen dira bere lanen ezaugarri nagusiak. Arantzazun, Donostian, eta beste hainbat tokitan daude berak egindako lan zoragarriak. Horiexek geratuko zaizkigu. Bere lanak. Inork gutxi aipatu eta bereganatuko ditu haren zorrotasuna eta pentsatzen zuena zuzen aurpegiratzeko grina. Are gutxiago haren pentsamoldea eta Euskal Herriren betiko ezaugarrien aldarrikapena. Zoritxarrez arimarik gabe husten ari garen Euskal Herria goraiapatuko dute batzuek. Kanpoko omen ona eta zoragarria, geure geureak direnen kaltetan. Ai, oi, ai Oteiza, zu bezalakoak gehiago balira. Askok esango duzue Oteizak ez zekiela euskaraz, eta ea hori den Euskal Herriaren betiko ezaugarrien aldarrikapena egiteko modua. Askok esango duzue nola arraio egin litekeen Euskal Herriaren betiko ezaugarrien goraiapamena euskaldun egiten gaituen euskara hitz egin gabe. Duela egun batzuk Joxerra

Gartziak hauxe esaten zuen: "euskaraz ez dakiten askok Oteizaren pentsamoldea balute...". Beste bihotz batzuek jasoko dute gure esperantza: ez gera alferrik pasako. Gure oinak markatutako bidetik bihar, etzi eta beti anai berriek jarraituko dute askatasunera daraman ibilera ez gera, ez gera alferrik pasako. Xabier Letek 60ko hamarkadan Oteizari eskainitako poesia baten zatia da hori.

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxa: 943 86 17 42
email:
baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria
Xabier Azkue

Erredakzio batzordea

Ibon Manterola
Eneko Dorronsoro
Itxaso Ibarra

Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Aitor Manterola

Kazetariak

Eneko Dorronsoro
Ibon Manterola
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet,
Dani Carballo, Inaxio Tolosa,
Belen Golmaio,
Izaga Garzia, Koldo
Landaluze,

Beñat Fernandez de
Arroyabe,
Ihintz Linazisoro, Egoitz
Lizaso, Garikoitz Telleria,
Natur Taldea

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Baleike

Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua
SS-405/94

ISSN

1136-8594

Argazkilaria:

Eva Franco

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

kutxa gizarte-ekintza
obra social



BAUTISTA BARANDALLA-ren ALDEKO MANIFESTAZIOA ZUMAIAN

MAIATZAK 27AN, San Telmo bezperako igandean, zumaian, Barandallaren aldeko manifestazio bat egin zen, preso etxarriar honi 92. artikulua aplikatu diezaioten eskatzen. Manifestazio hanek, maiatzak 26-27an eskualde mailan, hau da, Azkoiti, Azpeiti, Zarautz, Zestua eta Errezil-en eginiko baraualdiei amaiera eman zien.

Baraualdi honen helburua Barandalla eta antzeko egoeran aurkitzen diren hain-

bat presoen egoera salatzea zen. 24 orduko baraualdia izanik, Azkoiti, Azpeiti eta Errezilen 8ña pertsona bildu ziren, kontutan izanik badirela hilabete batzuk Azpeitin txandakako baraualdiak egiten ari direla astebukaerero. Zarautz eta Zestuan aldiz 30na pertsona bildu ziren. Baraualdi honi Zestuan eginiko prentsaurreko batekin eman zitzaion hasiera.

Zumaian eginiko manifestazioak 300

pertsona bildu zituen. Amaierako ekitaldia, txalapartarekin hasi zen eta ondoren Abelin Linazisorok presoek gartzeletan eta batez ere Barandallaren egoera saltasen zuten komunikatu bat irakurri zuen.

Aipatu Barandalla oraindik ere gartzeletan dagoela eta bere gaixotasuna gero eta larriagoa dela, beraz guztion ardura da Barandalla etxera ekartzea.

Zer dago gure esku?

ASPALDIAN BURUAN dabilkit galdera hau: Zer dago gure esku? Egia esan usteak erdi ustel gertatu zaizkit azkenaldian inguruan gertatzen ari den guztia ikusita... Nik uste nuen gizon-emakumeok bat eginda zerbait aldarrikatzea nahikoa izango zela, zenbait erabaki ez hartzeko, baina zoritxarrez, ez da horrela.

"Prestige"n hondamendiari aurre egiteko neurriak eskatu, eta hala ere gure kostaldea zikin-zikin eginda; "Egunkaria" itxi, protesta egin eta ez dute ireki, eta gainera, oraindik ere 3 langile espetxean; "gerrarik ez" behin eta berriz aldarrikatu eta gerra dugu; torturarik ez erregutu eta torturatzen jarraitzen dute...

Zer dago gure esku? Ba, salatzea, protestatzea, aldarrikatzea... baina zerbaitetarako balio al du horrek guztiak?

Zalantza betirik nago, baina ezingo dugu etsi...Nahi dutena edo buruhezurrean jartzen zaiena aurrera eramango dute, baina ezingo dizkiegu, gainera, erraztasunak eman eta alfonbra gorria

jarri, gainera, pasatzeko... traba egitea bakarrik al dago gure esku? Barkatuko didazue baina une honetan, bat-batean erantzun zehatza falta zait. Gutxienez hemen iritzia eman dezakegu eta ez da gutxi!

Zer gehiago egin dezakegu? Buruan dabilkit aukerak, baina benetan helburuak lortuko al ditugu? Inporta al zaie besteek zer pentsatzen duten? Eta hau zer gertatzen da politikan goi mailan bakarrik, edo gure herri, kuadrila edo etxean ere guk besteekiko horrela funtzionatzen dugu? Bakoitzak berak nahi duena egin behar baldin badu...anarkia; garai batean diktadura deitzen zioten, orain demokrazia eta horrelako deiturak ematen dizkiete. Zer dago gure esku?



Miriam Romatet



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517

AITA MARI
kafetegia

Julio Baobide, 15 Tel. 943 861395 ZUMAIAN



Ibon Aizpurua

Maiatzak 26

Astelehena, goizeko 6:15. Iratzargailuak tinpanoak lehertu behar dizkidala ematen du, ilunpean tramankulua nola ixildu asmatu ezinik nabil, halako batean eskuaz iratzargailua eta mesanotxean dauden gauza erdiak bota ditudala uste dut lurrera eta kauen!!! Oraindik hor ari da pi-pi-piiii!!! Argia piztu eta ixildu dut halako batean.

Begiko makarrak kendu ezinik komunera noa kanarioari ura aldatzera, badirudi eguna argitu duela, txoriak ere etengabea ari dira kantari. Betiko legez dutxa esnagarri bat hartu beharko dut ea pixkat espabiltzen naizen horrela. Burutik hasi eta hanketaraino iristen dira ur jario freskoak, begiak ere zerbait gehiago irekitzen hasi dira, badago premia bai horixe!

Dutxan hartutako freskatua eta gero bi naranja eta limoi baten zumoa igandeko zuritoen gustoa kentzeko. Errealak irabazi ala

galdu bezperako zuritoez uzten duten ahoaldea ez baita lanerako aproposena, hobe genuen atzo ura edan izan bagenu (astelehenetako sermoi tipikoa, astea aurrera doan ahala aldatzen joaten den sermoia...). Zerbait solidoa jan beharko dut, katilukada zereal esnez beratuak.

Oinetakoak jantzi, ilea orraztu eta bazkaria poltsan dudala atarira noa. Egunon Moriko! Hiri ere bai Raku! Eta nola ez gure Pinttori! Ez dago gauza hoberik guztiei egun on bat opatzen has-tea baino.

Iturrian ur freskoaz botela bete lanerako eta autoan sartu naiz, arrankatu eta irratia piztu dut...

Atzo hauteskundeak al ziren ba?



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861589



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

Bat



Gorka Hormazuri

Lehengoan Itzuruna jaitsi nindunan, Prestigen itzala zenbaterainokoa zen ikustera. Ai, neskak! Ez dakizue zer nolako bola, mina, sentitu nuen hemen, triparen erdian. Hondartzak garbitzera mugatu ditun agintariak eta, horretan ere, gaizki. Nola esan

behar zaie hondartzak garbitzea ez dela hondarra garbitzea bakarrik? Eta inguruko haizak? Eta zer esan gainontzeko kosta osoari buruz? Dena dela, zoritxarez hau ez dun galipotez zikindutako gai bakarra eta, badirudi, goazen martxan, gai bat estaltzeko beste handiagoak sortzen jarraitzeko asmoa dutela. Hau mundua! Edo mundukoak! Izekok esaten duen bezala.

Eta honela gabiltzala, San Telmoak gainean, eta blusa non laga nuen akordatzen ez, eta gero garbitu, plantxatu, pañueloa lepora eta....aire! Hau da, hau, zalaparta, urtean behin arrantzale bihurtzeko, edo itxura emateko behintzat, egin beharrekoa. Amuan txixxarea jartzen asmatuko banu, behintzat. Nire arrantzale sena arropan bukatzen dun eta, uste dinat, zuena ere hor nonbait. Absurdu samarra badun baina, azken finean, kontua herriko sentitzea dun eta guretzat, kanpoan gabiltzanontzat, horrelako detaileek garrantzi berezia dute, ezta?

Bi

Ixiar Eizagirre



Arrantzale blusa "kamuflaje"ko arropa da, bai, gu bezalako "inbasoreentzat". Zumaia festetan Bagdad totala da, eta kanpotik goazenok mentalizatu egin behar: gerrara goaz. Ura eta argia mozten dituzte tabernatan, auskalo zer saltsa kimiko ematen dizkieten inuzenteei, eta kanpotarrok arrisku latza airera jaurretako edalontziak gure bularrean lehertzeko. Arrantzale arropa tartean kamuflatu egin behar, beraz, gure moduko "eibartarrek" (zumaiarrek edozein Objektu Ibiltari Ez Identifikatuz "eibartarra" deitzen baitiote). Eta hala ere mahoizko galtza guztiak alferrik, ipurdi bistan beti gu.

Atean sartu orduko sumatzen dute zumaiarrek gure lehorreko aurpegia, "hauek kanpotarrak ditunk", "Getaiarrak bezela sarrera kobratzen hasi beharko dihau". Eta une horretan, kanpotar kamuflatuak hanka sartze nabarmena egiten du beti: bere erdi-zumaiartasuna aldarrikatzea. Eta hasiko da esplikatzeko bere aita zumaiarra dela, edo Itzurunera joaten dela beti eta ez Santiora, edo umetan zortzi olagarro harrapatu zitueneko azaina. Eta dena alperrik. Arkumea sarean bilduagatik, zumaiar bati ez dioz sartuko itsasoan harrapatu duzunik. Bada berdin. "Edo zumaiarra haiz, edo ez haiz". Eta arrazoi gainera. Gu ere, zumaiar autoktonoen bila, benetako zumaiarren bila joaten gara San Telmoetara, ezta?

Hiru

Estitxu Eizagirre



Zumaiarren arrantzan, bai. "Gabarrantza" da blusa urtean behin janzen dutenen gustuko aktibitatea. Iluntasunaren aterpean, justu paol muturreko argiak bakarrik onartzen dituzte, txosnetan hanka non jarri ikusteko, goizaldeko ordu txikietan arranpla barratik gero eta gertuago egoten da eta... Baina erne! Zerbaitengatik izango dute eta zumaiarrek olarru fama! Garroak luzatuta, banderaren trapua harrapatzen saiatzen ikusiko ditugu, baina inork ez omen zuen ikusi urte batean lapurtzea lortu zuen hura. Santuak ere eskapada ederrak egin ditu,

eguraldi txarra madarikatzen urtero uretara botatzeko hainbeste amenazu jaso ondoren. Zumaiarrek gauzez olarruak izango dira, baina egunez beti iruditu izan zaizkit sardinak. Koadrila handitan babesten dira, eta maiz parrilla inguruan elkartzen. Herri giroa ikusteko ez da Erribera kalera inguratu besterik egin behar. Hamaika gauza agertuko dira festetako esku-programan, baina prestatu gabe berez sortzen direnak ateratzen dira ondoen. Ezer espero gabe kalera ateratzen denak aurkitzen ditu sorpresarik onenak. Ondo pasatu festak, eta blusa "osasunarekin" urratu!

ODONTOLOGIA — PROTESIS DENTAL

CLINICA DENTAL ZUMAIAR HORTZ KLINIKA

Pazoleta de los Faros - Bajo
Tel. (943) 86 14 74
20752 ZUMAIÁ (Guzuloko)

Garretxe
Rafael Iraundegi Elgoibar

Kresala
— edergintza —

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



Erribera kalea Tel. 943 861523

Ez dakizula internet zer den?

FORONDAN DAGOEN Kzgunean internet ezagutzeko eta erabiltzen ikasteko aukera paregabea dago.

Orain dela bizpahiru urte, Eusko Jaurlaritzak internet ahalik eta etxebizitza gehienetan egoteko Konekta zaitez izeneko kanpaina egin zuen. Ondoren jarri zituen abian Kzguneak deitzen zaizkien guneak. Helburua bat eta bakarra: 16 urtetik gorakoek, baina batez ere langabeek eta etxean lan egiten dutenek internet ezagutu eta erabiltzen ikastea.

Aipatu bezala, Zumaian Foronda Kultur Etxean dago Kzgunea. Ikastaroak antolatzen dituzte, hileroko pare bat edo. Bi motako ikastaroak daude:

- oinarrizkoa: internet-en ibiltzeko oinarrizko ezagupenak ikasi daitezke. Baita e-postak bidaltzen eta txateatzen ere.
- aurreratua: internet-eko programak erabiltzen ikasteko ikastaroa da.

Ikastaroak edozeinentzat dira, eta gainera, dohainik. Beraz, aukera paregabea internet ezagutu eta erabiltzen ikasteko.

Batez beste 30 eta 50 urte bitarteko jendea izaten da ikastaroetan. Zaharrragoak ere hurbiltzen dira, hala ere. 80 urtekoren batek internet erabiltzen ederki asko ikasi du. Sekula ordenadore baten aurrean izan ez direnak hasieran beldurtu egiten direla esan digu Olaiak, Kzguneko arduradunak. Gero,



ordea, azkar asko ikasten omen dute.

Abenduan bi urte egingo ditu Forondako Kzguneak. Orduan baino askoz jende gutxiago joaten da orain. Foronda leku egokia denean galdetuta, Olaiak ezetz esan digu, beste leku batean egonda, akaso jende gehiago joango zela ikastaroetara.

Aipatutako ikastaroez gain, bada beste aukera bat: nahi denean bertara joan, eta internet erabili daiteke. Hau ere dohainik. Edozein joan daitekeela

esan digu Olaiak.

Ikastaroetan asko ikasten dutela ez da dudarik. Pentsa, web orriak ere egiten dituzte. Horietako bi sarean ikusteko aukera dago: Natur Taldearena, eta Beheko Plaza Elkartearena.

Bistan denez, aukera ederra etorkizunean ezinbestekoak izango diren tresnak ezagutu eta erabiltzen ikasteko. Oraindik ez duzula internet ezagutzen? Segi oraintxe bertan Forondara.



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astegunak: 8:30 - 10

Basadi, 7 behea
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



ELKARRIZketa

2004KO UDAZKENEAN egin nahi duten bake konferentziaren berri eman zuen Fernando Arzalluzek, Elkarriko kideak.

Iluna, beltza, blokeoa, ezinikusia, sufrimendua, gorrotoa, eta tankera horretako hitzak erabili zituen Fernando Arzalluzek gaur egun Euskal Herrian bizi dugun egoera azaltzeko. Denak larriak izanagatik, batek adierazten omen du ongien egungo egoera zein

den: blokeoa. Horixe da gakoa. Estatuaren eta ETaren strategiak blokeatu egiten dute gatazkaren konponbidea. Bi aldeek bazterketa bultzatzen dutela esan zuen, eta okerrago dena, elkar justifikatzen ari dira. Akzio-erreakzioaren legea erabiltzen dute. Jarrera horrekin estatuak demokraziaren oinarriak kolokan jartzen ari direla salatu zuen.

Blokeo egoera nondik datorren azaltzeko hiru kontzeptu hauek erabili zituen: absolutizazioa; deshumanizazioa; eta denak balio izatea. Alde bakoitzak bere ideiak absolututzat hartzen dituela esan zuen: estatuentzat Espainia eta Frantzia sakratuak dira; ETarentzat Euskal Herria beste horrenbeste. Ideien absolutizazio horrek norberaren proiektuak nola edo hala defendatzera eraman ditu bi aldeak. Ondorioz, defentsa horretan denak balio du: torturak, hilketak, ilegalizazioak, egunkariak ixtea. Proiektuak giza duintasunik gabe defendatzen direla salatu zuen Fernando Arzalluzek.

Konponbidea lor daiteke

Egoera triste, ilun eta gogor hori iraultzeko bidea elkarrizketa da. Horrelaxe esan zuen Elkarriko kideak. Lehenengo zeregina zerbait egin daitekeela sinestea da. Gizartea ezin du etsipenak jan. Zenbat eta blokeo gehiago, orduan eta sendago elkarrizketaren aldeko apustua. Indarrak biltzeak ere asko lagunduko lukeela zioen: gizartearen, politikoen,

eta nazioartearen indarrek bat izan behar dute. Ezinbestekotzat jo zuen gaur egun ezinezkoa dirudiena: indar politikoak hurbilaraztea.

Hori guztia oinarrian ipini ondoren, alternatiba eraikitzeko garaia dela esan zuen. Alternatiba horren lau zutabeak hauek lirake:

- indarkeriarik eza, esaldi honek ederki asko laburbiltzen duena: guztion giza eskubide guztiak.
- elkarrizketa, gatazka guztiak hitz eginda konpondu direla argudiatuta.
- adostasun zabala.
- erabakitzeko askatasuna, euskal gizartearen heldutasuna aldarrikatuta.

Bake Konferentzia

Alternatibak aurrerako bidea egiteko antolatu nahi dute 2004ko udazkenean beste Bake Konferentzia bat. Bi arrazoi nagusitan oinarrituta dago Bake Konferentzia hori egiteko asmoa: elkarrizketa bultzatzeko tresna ona delako; eta aurreko Bake Konferentzietan lortu zenagatik, eta lortu ez zenagatik.

Lau helduleku izango ditu 2004ko udazkenekoak: nazioarteko biltzar handia; gizartea; politikoak; eta mobilizazioak.

Hori bai, Bake Konferentzia egiteko ezinbestekotzat jo zuen 10.000 pertsonen babesa lortzea.

2003-2004 ikasturtean pentsatzen

Zumaiako Institutuan datorren ikasturterako matrikulak egiteko epea zabaltzeaz dago.

Aurtengoaren azkenetan gauden honetan, datorren ikasturterako matrikula egiteko aukera izango da laster Zumaiako Institutuan. Bat bukatu ez, eta hurrengoan pentsatzen.

2003-2004 ikasturterako eskaintza presatuta daukate. Bi arlotan banatu dituzte ikasketak:

1. Heziketa zikloak
2. Batxilergoak

Heziketa zikloaren barruan berezita daude, alde batetik erdi mailakoak, eta bestetik goi mailakoak.

Erdi mailakoetan honako aukera hauek daude:

- Barazki, haragi, eta arrain kontserbagintza. 1.400 ordu izango ditu guztira.

- Ekipo eta Instalazio Elektronikoak. Hau 2.000 ordukoa.

Goi mailakoetan haxe da eskaintza:

- Administrazio eta Finantzak. 2.000 ordukoa.
- Elikagaien Industriak. Hau ere 2.000 ordukoa
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak. 2.000 ordukoa.

Batxilergoaren barruan adar hauek daude:

- Teknologikoa
- Giza eta gizarte zientziak
- Natur eta osasun zientziak

Matrikula egiteko egunak

Aukera bakoitza ondo aztertu ondoren, matrikula egitera joan behar denez,

hauek dira hori egiteko egunak. Kontuan izan, heziketa ziklorako eta batxilergorako matrikula egiteko egun berberak direla.

- Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea: maiatzaren 5etik 9ra, biak barne. Heziketa zikloak egin nahi dituztenek sarbide proba egin beharko dute.
- Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea: ekainaren 2tik 11ra, biak barne. Heziketa zikloak egin nahi dituztenek sarbide zuzena izango dute.
- Matrikulazioa egiteko aldi arrunta: ekainaren 30etik uztailaren 4ra, biak barne.
- Heziketa zikloa egin nahi dutenentzat matrikula egiteko aparteko aldia izango da: uztailaren 24tik 28ra, biak barne.

GERRARIK EZ!!



ZUMAIAKO HERRIAK ere Irakeko inbasio eta gerra lotsagarriaren aurka dagoela azaldu zuen. Argiak itzalita, bonbardaketetan entzuten diren sirena hotsak aditu ziren Gernika parkean.

Ze berri?

KORRIKA 13 apirilaren 6an iritsi zen Zumaiara. Sekula baino jende gehiagok hartu zuen parte. AEK-koek hurrengorako ere badakizue: Zumaia egunez igaroz gero arrakasta ziurtatuta dago.



K O R R I K



Ttapi-ttapa, ttapi-ttapa, eguraldia lagun jende askok egin zuen Korrika, batzuk gainera, herrira iritsi baino lehen hasita.



ilargi


Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak: PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446



TXINGURRI
Koop. Elk.

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40
Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kiral zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak,
Balorazioak
Nekazaritza Injineru Teknikoak

ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
arotegi lanak
Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A



**TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK**
ERRIBERA, 8 943 861694

**EGUZKI
PUB**



Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B



**BASUSTA
ERRETEGIA**

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

Hauteskundeak gainean ditugunez, Zumaiaiko alkate izateko hautagai guztiekin hitz egin nahi izan dugu. Ezinezkoa izan da. PSE-EEK ez du parte hartu nahi izan, eta PPkoekin harremanetan jartzea ez dugu lortu. Izustarriko zerrendaburu den Andoni Etxanizekin, eta EAJ-EA koalizioko zerrendaburu den Maria Eugenia Arrizabalagarekin hitz egin dugu.

"Zumaian bada alternatiba, ezkertiarra eta euskalduna, eta IZUSTARRI du izena"

Nonbaitetik hasi behar eta, zuretzat zer esan nahi du zure alderdiko zerrendaburu izatea?

Alderdia ez da nirea, ni naiz alderdikoa, eta batez ere herria, Zumaia hobetzeko asmoz egin dut politikarako urratsa. Lanerako gogoa ez zaigu falta eta denborak erakutsiko digu noraino iristen garen.

Zeintzuk dira zuen programaren ardatz nagusiak? Zertan hobetu dezake Zumaia herri bezala? Nola ikusten dituzu ondorengo hauek:

Lehenik eta behin, puntu zehatz horietan sartu gabe, asmo orokor bat azaldu nahiko nuke, gure programa guztiarekin zerikusia daukana: zumaiarrek, herritar arruntek, udalean parte-hartzea nahi dugu, herritarren hitza zuzenean udalera iristea, udala hurbileko zerbait bezala sentitzea, eta ez han goian, urruti, dagoen zerbait. Horren haritik, udalaren demokratizazioa (bai funtzionamenduan, bai osieran) funtsezkoa iruditzen zaigu: alderdi guztiak kontuan izatea eta inor ez baztertea (adibidez, Gobernu Batzordean alderdi guztiak egotea), udal-batzordeak irekiak izatea...

Programako puntu zehatzei dagokienez, unean uneko konponbideak eta alternatibak daukagu, eta labor baldin bada ere, saiatuko naiz horietako batzuk azaltzen:

Etxebizitza: herritarren benetako premiak aztertzea eta horiei erantzutea. Etxebizitzen prezioak inoiz baino garestiagoak dira eta ez daude herritar gehienek esku. Promozio

publikoko etxeak bai, horiek bultzatu beharra dago, baina Zumaia osoan. Promozio pribatuko etxeei dagokienez, udalak ahalik eta gehien esku hartu beharra dauka merkatuan, nolabait esateko mugak jarri. Bestalde, etxebizitza asko eta asko hutsik daude eta ezinbestekoa da merkatua mugiaraztea, baita bitartekari lanak eginez ere.

Kirol-portua: askok iragarritakoa gertatzen ari da. Inondik ere ez da betetzen ari agindutakoa, ez lanpostuetan, ez suspertze ekonomikoan... Bestalde, beti zumaiarrona izango zela ere agindu ziguten eta gaur egun Eusko Jaurlaritzak dauka kontrola, ez dago gure esku. Ikusi beharko da zer egin...

Industria: aurrerapauso handiak egin dira azken urteotan (industri poligonokak sortu, industria txikiak hirigunetik kanpo eraman...) eta horrek eragin positiboa izan du langabeziaren jaitserian. Hala ere, langabeziari alternatibak ematen jarraitu beharra dago, batik bat gazteenean eta emakumeenean, baina beti ere lanpostuak kalitatezkoak eta baldintza duinetan izan daitezkeen saiatuz.

Turismoa: bai, gu ere ados gaude Benidorma autobusak subentzionatezuekin... Txantxak alde batera utzita, turismoa bai, baina tamainan. Zumaia ez da herri turistikoa; ezin gara bizi kanpotik zer etorriko eta ezin gara sentitu gure herrian arrotz. Turismoak ezin du baldintzatu

zumaiarron bizitza.

Hezkuntza-euskara: bi hauek sarritan elkarrekin azaltzen dira, baina uste dut bereizi beharra dagoela. Hezkuntzak hezi egiten gaitu, batez ere gure bizitzako etapa jakin batean; eus-



"Zumaiarrek,
herritar arruntek,
udalean parte
hartzea nahi dugu"

karaz, berriz, bizi egin behar dugu, gure bizitza osoan. Hezkuntza publikoa, euskalduna eta kalitatezkoa dugu helburu, eredu euskaldunean, ikastetxeen eta udalaren arteko elkarlana bultzatuz. Euskarari dagokionez, zoritxarrez euskara ez dago normalizatuta Zumaiian eta lan handia egin beharra dago, epe luzeko ikuspegiarekin: euskara-zerbitzua indartu, azterketa soziolinguistikotik ateratako proposamenak gauzatu, euskararen aldeko erakundeekin elkarlan estuagoa...

Etorkinak: elkar ezagutzea bultzatu, elkar errespetatuz eta elkar ezagutuz. Oso aberasgarria izan liteke guztiontzat.

Auzoak: koordinazio--bideak eta komunikazio--zubiak eraiki beharra dago, hirigunetik kanpo dauden auzoekin berdintasunetik lan egin, inondik ere ez aparteko zerbitu edo bigarren mailako herritarrak balira bezala; eta alternatiba egoziak eskaini, tokian tokiko arazoak konpontzeko.

Kultura: Foronda txukun eta eder utzi da, baina beste ekipamendu batzuk zeharo baztertuta daude: Oxforren goialdea, Usategia... Udal ondarea aztertu eta etorkizunari begirako planteamendua egin. Interpretazio zentroa bai, baina beti ere egitasmo zabalago baten barruan, batez ere ingurugiroaren babesa eta lanketa kontuan izanik. Kultur elkartei ahalik eta gehien lagundu. Herri honek kultur astindu eder baten premia du...

Ingurugiroa: aparteko batzordea edo bilgunea eratzea, ingurugiroa landuko duena eta herriko erakundeak eta elkarteak batu dituen, gure ondarea babesteko, gure gune naturalak zaintzeko. "Prestige"-rena gertatuta, are beharrezkoagoa da...

Zumaiaren etorkizuna nola ikusten duzu? Itxaropenez. Badago zer egin eta zer hobetua, eta horretarako egingo dugu lan.

Zumaiian islatzen al da Euskal Herriko arazo/gatazka...? Hala bada, zer egin genezake zumaiarrok arazo/gatazka... konpontzeko? Bai, herri gehienetan bezala: alderdi politiko bat eta hainbat erakunde legez kanpo daude,

"Zumaiian badago zer egin eta zer hobetua"

hautagai batzuek bizkartzainekin ibili beharra daukate, mobilizazioak izaten dira presoek eskubideen alde, kontzentrazioak Egunkariaren itxieraren aurka, herrien eskubideei buruzko hitzaldiak... Nonahi aurkitzen dira gatazkaren muina edo ondorioak. Izustarriren sorrera ere hor kokatu beharra dago; zumaiar askoren ahotsa isilarazi nahi dute, baina herri honek beti jakin izan du alternatibak aurkitzen.

Konponketari dagokionez, neurri handi batean guztion esku dago irtenbidea. Hitz egin beharra dago, guztiok, nolabait ere Lizarra-Garazira itzuli, elkartzen gaituzten puntuen inguruan bildu. Alde horretatik, LAB eta ELA sindikatuen ekimena txalagarria da.

Banan-banan,beste alderdien hautagaitzari ikusten diozun puntu onen bat, alderdi positibo bat.

PSOE: gai sozialekiko duten sentsibilitatea.

PNV/EA: aspaldian bananduta zebiltzan anai-arrebak azkenean kandidatura baten azpian batu izana.

Zure hautagaitzaren puntu txar bat

Gestioan esperientziarik eza. Jende gaitua gara, langileak eta zintzoak, baina inoiz ez dugu aukerarik izan udala gestioatzeko.

Bukatzeko konbentzitu irakurlea botoa zuei emateko

Zumaiian bada alternatiba, ezkertiarra eta euskalduna, eta Izustarri du izena. Izustarritik Zumaiari begira, zintzo eta jator lan egiteko konpromisoa hartzen dugu, handikeriarik gabe, Zumaiaren eta zumaiarren alde.



Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970



Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

"Zumaia leku pribilegiatuan jarri dugu"

Zuretzat zer esan nahi du zure alderdiko zerrendaburu izatea? Edozeinentzat bezala, norbere aukera politikoa-ren hauteskundeetarako zerrenda buru aukeratua izateak bi gauza inplikatzeko ditu, alde batetik ohore handia, baina batez ere, erantzukizun maila galantari aurre egin beharra. Azken finean, zerrendak osatzen ditugun gizon-emakumeak hauteskundeetatik aterako diren emaitzen

araberako eginbeharrei erantzun beharko diegu eta jarduera horretan Zumaia herritarren asmo eta premiei irtenbide egokiak eman, beti ere bakoitzaren aukera politikoei markatzen dituzten egiteko modu eta ideal politikoei eguneroko jardueran aplikatuz. Gainera, oraingo honetan ez gara EAJ-PNV bezala aurkezten, EA-rekin koalizioan baizik, eta euskal gizarteari orokorrean, Zumaia-koari geure kasuan, egiten diogun eskaintza, eskaintza estrategikoa dela ere esan daiteke, kale itsu baten antza duen une honi irtenbide zabalagoa eskaintzeko asmoz.

Zeintzuk dira zure programaren ardatz nagusiak? Zertan hobetu dezake Zumaia herri bezala? Nola ikusten dituzu ondorengo hauek:

Alde batetik zumaia-errek dituzten eta izan ditzaketen etxebizitza beharrei erantzun egokiak eskaintzea izango da gure jardueraren ardatz nagusienetako bat. Etxebizitzarena aspaldidanik areagotzen ari den arazoa izanik etxebizitza babestuen politika oinarritzkoa da, eta horretan egiten ari garena-ekin jarraitzea berriz ezinbestekoa. Ez da gure asmoa Zumaia besterik gabe handitzea, zumaia-errei beraien bizi proiektua herrian bertan garatzen laguntzea baizik. Bestalde, gizarte politikak geroz eta garrantzia handiago hartzen doazela argi ikusten dugu, eta gizarte bilakaerak markatzen dituen erronka berriei aurre hartu behar diegula. Adin handiko herritarrek ugaritzen ari zaizkigu, horrek daukan alde on guztiarekin, baina gaur egungo familietako kideen bizitzeko modua ez da orain dela urte batzuk zena, eta zumaia-erriek izan ditzaketen arazoei guztion artean era egokian irtenbideak ematen saiatu behar gara. Bestalde, hor dago ere gure artean geroz eta gehiago diren etorkinak gizarteratzeko neurriak hartu beharra, edo arrisku egoeratan dauden gure gazteei laguntza ematea, edo oro har beste hainbat giza-taldek agerian uzten dituzten arazoak... Azken finean, Zumaia geroz eta herri hobea egin behar dugu zumaia-er guztiontzat. Hirugarren ardatz bat ingurugiroarekin lotuta doa. Urteak aurrera doaz eta badirudi gizarteak orokorrean arreta handiago eskatzen duela gure inguruari oraindik ere eragiten dizkiogun kalteekiko. Hala ere gutako bakoitzak ingurugiroaren egoeran eragile gareneko kontzientzia

orain artean egin duguna baino askoz ere gehiago areagotu behar dugu. Hor dago Agenda 21-a martxan jartzeko erronka. Eta bukatzeko, euskara indartu eta Zumaia herri erabat euskalduna bihurtzeko erantzukizuna.

Etxebizitza: Aipatu dudan bezala hau da dugun arazoetako bat. Azken urtetan Zumaia-ko Udalak lurrraren jabetza eskuratzeko eta etxebizitza publikoak egiteko politika erabat eskuhartzailea eta eraginkorra eraman du, horretarako legeak uzten dizkion baliabide guztiak erabiliz. Gure hemendik aurrerako asmoa bide berdietik jarraitzea da, Zumaian egin dena leku askotan eredutzat hartua izan da eta. Promozio pribatu-eragitea oso da zaila, nahiz eta hemendik aurrera gauzatuko direnak ere, nola ez, legea betez, Etxebizitza Babestuak ere egin beharko dituzten, eta horien gestioa eta esleipena sinatu diren hitzarmenen arabera

Udalak berak egingo duen. Baina benetan derrigorrezkoa duguna gu geuk eragitea da, eta egin den azken eskaintza publikoan agerian geratu diren etxebizitza beharrei erantzuna ematea.

Industria-langabezia: Orain urte batzuk ikaragarria zen Zumaia-ko pairatzen zuen langabezia maila. Urte horietan arazo hori konpotzeko

asmotan asko egin du Zumaia-ko Udalak, besteak beste orain ditugun industrialdeak gartztea, enpresa berriak erakartztea. Egia da langabezi kontutuan ugari direla zeresana duten faktoreak, gehienak Udal baten eskumenetik urrun geratzen direnak. Egoera ekonomikoak lagunduta neurri handi batean zuzendu da azken boladan iraganean izan genuen langabezia maila, nahiz eta oraintxe bertan berriz ere somatzen den ekonomiaren hoztea. Herria

prestatuta edukitzea da garrantzitsua dena; industria sare indartsua osatuta dugu jada, eta ekonomiaren dibertsifikazioan saiatzen jarraitu beharra dugu.

Turismoa: Ekonomiaren dibertsifikazioaren ideiarekin jarraituz, hirugarren sektorea, zerbitzuetakoa landu behar dugu. Zumaia herri industrial da, bai, baina badu berez jendea erakar dezakeen azpiegitura, paisaia, eta zerbitzurik. Ez da gure asmoa garapen turistiko ikaragarri-eragitea, inondik inora, baina bai jasangarritasunetik abiatuta gure turismoa lantzea. Hiri-gintza egokia egin behar dugu, lehendik duguna hobetu, herri geroz eta txukunagoa, inguru garbiagoa lortu. Zumaia zenbat eta abegitsuagoa izan, zumaia-erriak izango dira inoren aurretik horren onura somatuko dutenak, eta ondoren, guregana hurbilduko zaizkigunak.

Hezkuntza-euskara: Zumaia-ko Herri Eskola sortzea eta gure hezkuntza sistemari D eredia ezartzea bi lorpen ikaragarri izan dira herriarentzat. Horrela, Maria eta Jose Ikastetxearekin batera, hezkuntza sistema egokia, gaurkotua eta anitza dugu herrian.



"Herritarrei eskaintzeko zerbitzuak hobetu behar ditugu"

Hemendik aurrera Zumaiaiko ikastetxe guztiak gauzaten ari diren proiektua ondo finkatuta egonda, Udalaren lankidetzaz izango dute hura hobetzen joateko. Gure asmoetako bat Oikian eskola berri bat lortzea da, ari gara jada horretarako oinarriak lantzen. Eta euskarari dagokionez, erakundeetatik eta eskoletatik abiatuz gure eguneroko bizitzako maila guztietara zabaltzen bereziki saiatu beharra dugu. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren eskutik eta Udalak bultzatuta, euskarak gure jarduerako alor guztietan premiazkoa duen presentzia eta erabilera maila bermatu behar ditugu. Hasteko, eta Planaren abiapuntuetako bat hori da, Euskara Teknikari berri bat ere kontratatu beharko dugu.

Etorkinak: Gure bizibaldintzak, dakizkigun muga guztietan ere, gure "lehenengo mundu" honetatik kanpo dauden miloika lagunena baino hamaika aldiz hobetoak direla jakin badakigu. Seguruena gainera gure sistema neurri batean desoreka horietan oinarritzen da... Nola ez dira ba guregana etortzen saiatuko?. Beraz, datozten urteetan gure kaleetan etorkinak ugaritzen ikusiko ditugu, eta horrek ez du zertan arazo izan behar. Jakin behar duguna zera da, kasu askotan gure kulturatik urrun dabilzan horiek geureganatzen, gurekin batera gizarteratzen, etortzen zaizkigunekin ere euskal gizartea eratzen. Ezin ditugu ghettoak sortu. Hezkuntza sistema ere moldatu beharko dugu gure hizkuntza indartua irten dadin erronka berri honetatik. Eta ezinbestekoa izango da horretarako baliabideak jartzea.

Auzoak: Zumaiaiko Udala herrigunetik dauden auzoguneei ere zor zaie. Herri orekatua dugu helburu, eta gure herritar guztiek parte izan behar dute helburu horretan. Baita Oikia, Artadi eta Narrondoko herritarrak ere. Hala ere auzoek arazo bereziak izaten dituzte, nabarmenena zerbitzu guztiak ezin izaten direla guztietara hedatu. Baina badituzte beraien abantailak ere, bakoitzaren izaera berezia, besteak beste. Datorren legealdi honetan lurraldearen garapen jasangarria egin beharko dugu. Oikian esaterako, aipatu dudan bezala ikastetxe berri bat egiteaz gain, bertako jendearentzat etxebizitza babestuak eraikiko dira, oikiarrek ere badute eta beren auzunean horrelako aukerak izateko eskubide osoa. Artadi berriz, azken urteetan utzik geratzen joan den auzoa da, eta arautan aurreikusten da zenbait etxebizitza berri sortzeko aukera. Narrondoko arazoa berezia da. Alde batetik Narrondo ibaiak Kostas-eko Legeak ezarritako muga ugari pairatzen ditu, etorkizunean Zumaiaiko herriaren hazkunde logikoa tratatzen dituztenak, eta bestalde, Zestoak Arroa Behean planteatu duen desarrolloak baldintzatzen du Narrondoko etorkizuna. Hor galdera ugari daude erantzunak lehenbailehen behar dituztenak. Hala ere hasieran esan dudan moduan, bertako herritarren beharrei arreta berezia eskainiko diegu.

Kultura: Kultur azpiegiturretan azken denboraldian hobekuntza garrantzitsuak eman dira, liburutegi berriak, teknologi berrietara hurbiltzeko aukerak, eta abar. Hala ere Foronda Kultur Etxeko sotoa oraindik orain berrikuntza sakon baten zain dago, bertan tailer eta ikastaro eskaintza zabalago bat emateko modua ahalbidetuko duena. Bestalde, datorren legealdi honetan Alondegiko eraikina goitik behera berritzeko asmoa dugu, bertan zer nolako azpiegiturak komeni direnari buruzko azterketa egin ondoren. Erakustareto on bat egokitzearena argi dago, horretaz gain erabileraren anitzeko gelak ere egin beharko dira. Baina kultura ez dira azpiegiturak soilik, kultur programazio geroz eta aberatsagoa lotzeko asmoak etengabea izan behar du, eta herriko elkarte eta jende-

aren partaidetza ezinbestekoa.

Zumaiaeren etorkizuna nola ikusten duzu?

Gu harro gaude Zumaiaz, denok egon behar gara benetan harro gure herriaz. Orain arte egindakoarekin Zumaia leku pribilegiatua jarri dugu, lortutako aldaketa nabarmena da guztiontzat, eta denok somatzen dugu kanpoko jendea hori azpimarratzen duten komentarioak egiten. Beraz, etorkizunari egoki aurre egiteko moduan gaude. Eta gure etorkizunaren neurria zumaiaerok ditugun asmo, nahi eta premiek emango dute, ez dugu planteatzen oinarri sendorik gabeko hazkunderik, denok kontutan hartuko gaituena baizik.

Zertan hobetu dezake Zumaia herri bezala?

Garenarekin harro egoteak ez du esan nahi etengabeko hobekuntzari uko egin behar diogunik. Herritarrei eskaini beharreko zerbitzu mailak hobetu behar ditugu, eta hauen kudeaketa eraginkorragoa egin; egoera zailean dauden herritarrei eskua luzatu; gure inguru zaindu; eguneroko bizitza euskaldundu; mugikortasun zailtasunak dituztenei irisgarritasuna egokitu, autoek gaur egun planteatzen dituzten arazoei irtenbide bat eman, eta horretarako, ia denok dugun mentalitatea aldatu beharretan izango gara; besteak beste bidegorri sare bat egin herria zeharkatuko duena. Zarata mailak sortzen dituen arazoei arreta eskaini,... Azken finean guztiok elkarrekin geroz eta hobeto bizi nahi badugu Udalaren jarduerak ikaragarriko garrantzia du, baina beste hainbeste du bakoitzaren jokabideak.

Euskal Herriko gatazka politikoa nola konpon daiteke?

Ez dakit horretarako formularik ba ote dagoen..., egonda ere ez da erraza izango. Hala ere Ibarretxe Lehendakariak badu proposamen bat, dagoen bakarra. Elkarrizketa oinarritzakoa da, baina elkarrizketa hutsak ez du ezertarako balio borondaterik ez badago. Euskaldunok geure buruaren jabe izateko eskubide osoa dugu, Herri bat garelako eta hala nahi dugulako. Inork ezin dio beste bati izan nahi ez duena inposatu. Eta horrek bi alderdi ditu: Espainiak ezin gaitzake espainiar bihurtu gogoz kontra, eta ETA-k eta "borroka armatua" baliokotzat dutenek ezin dute beraien proiektua tiroz edo bonbaz ezarri. Azken finean, gure asmoa aurrera eramango badugu borondateak atxikitu behar ditugu geurera, eta hori hitzez eta ekintzez egiten den kontua da, ez dago beste formula magikorik.

Euskal Herriko herritarrak abertzale bihurtzen ditugun heinean handituko zaigu gure etorkizunaren jabe izateko itzaropena. Etengabe pausoak emanaz, maximalismo antzuak baztertuz. Nafarrek ez dutela gurekin etorri nahi?, kontentzitu ditzagun gure aukera Espainiak ematen diena baino hobeto delako. Berdin ifarraldekoekin. Bonbez bazterrak lehertzen ez ditugula inoiz erakarriko argi dago.





Aldaketak euska- tegia

Zumaiako euskaltegia aldaketa giroa da nagusi. Azken urteetako egoitza uztekotan dira, eta beste baten bila dabilta. Horretaz gain, irakasleak ere berriak izango dira.

AZKENALDIAN, euskaltegien inguruan hausnarketa sakonak egiten ari dira. Ikasle kopurua asko jaitsi da, eta horrek beste hainbat ondorio ekarri ditu. Kezka da nagusi, baita Zumaiari ere.

Aldaketak

Handiena egoitzarena izango da. Zortzi urtez Erribera kalean izan eta gero, aldaketa egiteko garaia dela erabaki dute. Motiboak? Batez ere, errenta altua. Alokairua garestia izatearen ondorioz, diru aldetik urtero dezenteko zuloa izaten dute, eta ikasleen jaitsierak handitu egin du zuloaren tamaina. Diru arazoak gero eta handiagoak direla ikusita, Udalari proposamen hau egin diote: errenta hamar urterako dela kontuan izanda, geratzen diren bi urte-en alokairua Udalak ordaintzea. Herriko erakunde nagusiaren erantzuna ezezkoa izan da, ordea.

Orain Zumaiako AEK eta Udala egoitza berria zein izan daitekeen nego-

ziazten ari dira. AEK-koek Udalariko egoitza bat uzteko eskatu diote, eta orain horretan daude: Udala egoitza bila, eta AEK zain.

Lehen aipatu bezala, irakasleak ere aldatuko dituzte. Zazpi urtetan lan handia egin duten Arri Korta eta Itziar Mora badoaz. Arrik dagoeneko utzi du, eta Itziarrek ekainean uzteko asmoa du. Ez da bat-bateko erabakia. Denbora zeramaten hausnartzen, eta azkenean orain uztea erabaki dute. Asko eskatzen duen lana dela diote, eta zazpi urtez aritzea nahiko dela uste dute.

Zaharrak joan eta berriak etorri. Arri eta Itziarren ordez, oraingoz beste irakasle bat etorri da. Jon Bikendi da bera, azpeitiarra. Bat ordea, nahikoa ez, eta irakasle gehiagoren beharra dago.

Beste bi etortzekotan omen dira. Biak kanpokoak. Eta Itziarrek eta Arrik zumaiarra izatea nahiago dute, klaseak emateaz gain, beste hainbat gauza egin behar direlako. Eta horretarako zumaiarra izatea egokiagoa dela uste dute. Beraz, badakizue, euskara irakatsi nahi baduzue, AEK-n zuen zain daude.

Etorkizuna

Azkenaldian ikasleen kopuruak behera egin duela ikusita, etorkizunak kolore iluna duela esatea ez da gehiegikeria. Zumaian bertan, jaitziera handia izan da. Horren zergatiak aztertzen hasita, Itziarrek eta Arrik ondorio hauek ateratu dituzte:

- jendeak ez dauka motibaziorik euskara ikasteko.
- motibazio ezaz gain, arrazoirik ere ez dauka ikasteko. Batetik giroa asko lasaitu delako, eta bestetik, ikasi nahi

duenak urtebetean ikasi nahi duela. Eta hizkuntza bat ezinezkoa da hain denbora tarte motzean ikastea.

Ikasle kopuruaren jaitzieraren zergatia azaltzen duen beste kontu bat ere bada. Gela bat osatzeko bederatzik ikasle behar dira, edo bestela, bederatzira iritsi ez arren, euskaltegiko gela guztien batez besteak bederatzikoa izan



Norbere etxeko
seme-alabengatik
euskara ikasi beharko
lukete ez dakitenek

behar du. Eta jakina, ratio horretara irizti ezean, ez dago gelarik. Gelarik ez egotean, ikasteko prest dagoen ikasle kopuruak ezin du ikasi.

Orain Zumaiaiko euskaltegian bi gela daude. Bat zazpi ikaslekoa. Bestea hamaikakoa. Bederatziko batez beste-koa justu-justu egiten dute. Lehenengo gelan euskara ikasten ari direnak daude. Bigarrenengan EGA ateratu nahi dutenak.

Udalarekin harremanak

Ikasleen jaitzieraren azterketa egiterakoan, motibazioa aipatu dugu. Itzia-

rrek eta Arrik argi eta garbi dute erakundeek izugarriko lana egin beharko luketela jendea motibatzen. Beraien ustez, lana egin arren, ez dute behar hainbeste egiten. Motibazioa pizteko orduan lan gehiago egin dezakete. Nola motibatu jendea? Itziarrek eta Arrik eguneroko bizitzan gertatzen diren egoerei helduko liekete. Euskal

hiztunok euskaraz hitz egiteko daukagun eskubi-dea bermatzeko garaian erakundeek zerbait egin dezaketela uste dute. Eta batez ere, jendea motibatzen arrazoi hau botatzen dute: seme-alabak. Norbere etxeko seme-alabengatik euskara ikasi beharko lukete ez dakitenek. Alde horretatik, Zumaiaiko Udalak zerbait egin duela diote, baina aldi berean ez dela nahikoa uste dute.

Diru laguntzak ere handiagoak izan beharko luketela diote. Beste gauzetan eta beste hainbat arlotan gastatzen duten diruaren zati bat euskara eta euskal kulturara bideratu beharko litzateke.

Laguntzeko asmoa izan arren, eta borondate onena edukiagatik ere, ez dute nahikoa egiten.

Bestalde, Zumaian bertan herritarren parte hartze handiagoa eskatzen dute euskararen inguruko erabakiak hartzeko orduan. Udalak herriaren iritzia kontuan izan beharko luke tamaina horretako erabakiak hartzerakoan.

Hala ere, dena ezin txarra izan. Erakundeek egindako kritika horiek laguntzeko direla diote Arrik eta Itziarrek. Ez dira kritikatzegatik egindako kritikak. Gainera, azken urteetan AEK-ren eta Udalaren arteko harremanak asko hobetu direla diote.

GORA GU TA GUTARRAK!!

JENDE ASKORI eskerrak eman beharrean gaude, AEKko irakasleok Zumaian ezingo genukeelako ezer egin, izan dugun laguntza izan ez bagenu. Izan ere, AEKk horrelako askoren babesa beharko du datozen garaietarako. Ikusi besterik ez dago euskararen eta euskal usaina duen orori zer gerta dakioken...

Bai. PLAN bat badago, eta ez da paranoia bat. AEK, Ikastolak, EGUNKARIA ez dira salbuespena. Edo zer uste zenuten, libratu egingo zela baten bat, ala? Gajoak eta gizajoak!

Gogoan al duzue, Euskal Herriko hainbat talde ETArekin eta 'Udaletxe' proiektu delakoarekin nahasten zituzten sumario ospetsu bat bazela, 98an ireki zena? Eta esango duzue... zertara datoz hauek orain, beren paranoiarekin, AEKren auzia aspaldi isildu zenean? Bueno, ahaztua daukagu izena, sumario 98/J-K-L... berdin dio, baina epailearen izena gogoratzen dut: Zumar-eneako Morroia ez zen? Bada, inork ez dezala pentsa sumario hori baztertu eta istorio guztia amaitu zenik. Ez horixe!

Euskaldunok zerbait baldin badugu, hauxe da: zerbait fresko-fresko eta EGUNERO jaso-jasotzen-jasoko duguna -eta ez gara ari, ez arrain beltzaz ezta izen txarreko hizkuntza batean idatzitako *planfétilloez* ere. ALBIS-TEAK egunero jasotzeaz ari gara. EGUNERO entzuten dugu Espainiako erresumatik datozen loreak vascuence (horrela izena du, ezta?) delako hizkuntza inintelligible eta anticuao honetan irakatsi, idatzi, edota tximuarena egiten duguongatik.

Ai, ze atzeratuta bizi garen Cro-Magnolandia honetan! Izan ere, antza dugu Españolandiako eta Frantziolandiako gizakiekin, baina ez gara homo sapien-sapien-sapiensa izatera iritsi, ezta gizaki horien hizkuntza modernoak jakitera ere (guk geuk ere, pixka bat ulertu baino ez dugu egiten). Horregatik, AEK-kook (aipatutako sasi-hizkuntza horretan idazten dutenek bezala) gure soldatetik zerga iraultzailea ordaintzen dugu, \$ 20.000.000 ez baita nolana hiko soldata! Gainera gure tribuko buruzagiek (urteko superabita: \$ 854.206.706,22) **irabazien** %7 ematen diete egituraren goialdean dauden buruzagiei. (Jo, pentsa, Eusko

Jaurlaritzak lehenengo guri ematen digu eta gero zuzenean egitura osoko buruzagiei berriro; eta Udalak berdin... Hau da euskaldunon eskuzabaltasuna!

Ze, zergatik dira euskaldunak hain solidario, eskuzabal, brigadista, dinamiko, etab? Zeinek daki. Gure uste apalean, **ondoko herrialdeetako antropologoek ikerketa bat egin beharko lukete** gai interesgarri horri buruz.

Ikerketa hori egin bitartean, baina, guk eskolak ematen jarraitu behar dugu: badakizue, gaiztakeriak nola egin, nola izorratu beste landia horietakoak, 'Zumar-eneako *Morroia eta Gernikako Arbolarena*' eta antzeko beste ipuin batzuk kontatu, Nor-Nori Nork eta beste asmakizun *bantu-konplikatu* horiek mailu eta iltzeekin ikasleen buruan sartu, etab.

Nahi baduzue, hizkuntza horretan hitz egin nahi ezin dugunok eta beste edozein ere **elkar gaitezke, hilaren 27an (San Telmo bezperan), kofradian, gure arbasoek bezala, TALO-JANA egiteko**. Ze demonio, onartu dezagun! Ez dezatela pentsa urtean behin bakarrik *elkartzen* garela Akelarrea egiteko! Edo bestela, ikerketakoek galde diezaiotela Subijana, Argiñano, eta abarrei!

"Ai, ze atzeratuta
bizi garen
Cro-Magnolandia
honetan!"

**Bai, ETA ESKERRIK ASKO
ZUMAIA, Korrika bertatik igaro**

zenean korrika egin eta animuak ematen aritu zineten guztioi.

Eskerrik asko AINARA eta NEKANE, AITZI, ARRI eta ESTI, MIRIAM, JEXUX,... eta KORRIKA Batzordean parte hartu zenuten guztioi.

Eskerrik asko Herri Eskola, Institutua, Maria eta Jose, bertako Guraso Elkarte eta KORRIKA txikia antolatzen lagundu zenuten guztioi.

Eskerrik asko K. KULTURALEKO ekitaldietan parte hartu duzuen guztioi.

Eskerrik asko Zumaiako Udalarari eman duen laguntzagatik.

ESKERRIK ASKO ..., ..., ...

Itziar Mora
AEK-ko irakaslea

Euskara irakaslea izan nahi duzu?

Zumaiaiko AEKk behar zaitu!



GLOTODIDAKTIKA IKASTAROA

HIZKUNTZA IRAKASKUNTZARAKO
oinarrizko prestakuntza

Informa zaitez Gipuzkoako AEKren bulegoan
(Iztueta 3 behea, Donostia) edo 943 32 71 72 telefonora
deituz

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

DORNUTEGI

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

- Klase teoriko ikusentzuzkoen abantailak erabilita

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

zidatzeko baimen guztiak



INMOBILIARIA

Amara

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

Santelmuetatik zer da gutxiyen gustatze zazuna?

Joakin Gorostola

Normalian egualdiya, ta bestia jende geyegi eote'ala.

I aki Ijurko

Ze esango yat ba!! Dana gustatze zatek. Iguai festetako toki gutxi daola jende asko etortzen badek.

Patxi Romeo

Ze esango yat ba!! Musika, rocka etzatek gustatzen, soino haundiya ateatze'uelako.

Loli Nolaskoain

Dana gustatze zat. Egualdiya da txarrena.

BATE GRAZIYIK ITE ez'tiun santelmuetako egualdi txarra hainbeste aipauta, gure argazki kamarak izkutu ta lanik ez itia erabaki du. Horreatik uainguan argazkiyik gabeko inkesta trixtia atea zaigu. Santelmuetako egualdiya bezelakua. Ea aurtenguan portatze'an... ta gure kamara izkutututik atea ta lanian ber dun bezela haste'an.

JATETXEA
LUBAKI
Basel Auzotegia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

GANBARA
Taberna
juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

dekorazioa

ALBERDI



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

CROISSANTERIA
pizzak
hanburgesak
bokatak...
Marina
Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

SIWA
Belardenda
Basadi 9
943 143404

- Etikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuna
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

TALAI
INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIAK 943 143323
Ortega y gasset, 1

Egunkaria aurrera

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun
(dagoeneko harpideduna bazara, ez bete)

deitu **943 30 35 55**
943 30 35 54

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide honetara:
Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

Euskarak behar zaitu **Egunero**

Arkupe



*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

od AUTOS ZUMAIA

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



Julio beobide 3, tfno. 615 70 25 23

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko arrietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402
TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

Alberdi
Gizonetzkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

Tapaia
Taberna



Erribera Kalea 20750 ZEMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

SAION
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 **943 860151**

ARozTEGIA
Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505

San Telmo kalea

S ANTELMOAK gainean ditugula eta, Manurenak dakartzagu gaurkoan. 1985 urtean gure santuaren izenean urtero antolatzen den sariketarako paratu zituenak hain zuzen ere. Luzeegi joko zuela eta bi ale kendu egin ditugu bertso sortatik.



Zumaiako Bertso Eskola

Doinua: Ari naizela ari naizela

-1-
San Telmo jaiak direla eta jarriak gaude kantari herri honetan arrantzaleak hau baitaukate zaindari festa giroan sartu gera ta edonork hau du nabari bertso batzuek paratu behar santu horren kaleari.

-2-
"San Telmo Txiki"ren irudia kale horrek hortxe dauka bizar ta guzti guri begira eskuan dula txalupa norbaitek txukun asko jartzen du urteko hautsak kenduta lore ta argiz inguratirik egon ohi da apainduta.

-3-
Kalearekin lotuta dago bertan bizi den jendea garai batean ezaguna zen hor Kleto arrantzalea Eskolastika, Epifanio hau kale garbitzailea Julene berriz irakaslea eta euskal idazlea

-4-
Hor ezagutu gendun baita ere Joakin Trino bainerua Arrio Zaharra eta Kanikas ez gendun jende erua hoiien artean bazen beste bat lanbidez gabarrerua kale horretan bizi ziren ta harro zeukaten burua

-5-
"Pattar kalea" deitzen zioten garai baten herritarrak zergatikan den jakingo dute gaur bizi diren zaharrak orain bezala orduan ere izango ziran beharrak tabernarikan ez zegon eta etxean trago edarrak

-6-
San Telmo jaiak direla eta bertsoak ditugu presta kale polit bat dela medio burua pixka bat freska sariketa bat jarrita gero ezin ibili iheska zahar ta ume jai onak pasa berdin mutil eta neska.

Urola-kostrako ajeak

Zumaiako Natur Taldea

M ARTXOAREN 8an, inauteri giroan, aldarrikapen kalejira bat egin genuen Zumaiako kaleetan, galipotaren bilketan administrazioak erabilitako moduak salatzeke asmoz.

Udaleko aldizkari ofizialaren azkeneko zenbakiak zioenez, fuela urtarilaren 10ean heldu zen, eta oraindik arraldean jaso gabe segitzen du.

Hori dela eta, kartel informatibo batzuk jarri genituen ohiko lekuetan, eta bukaeran hegazti batzuk eta fuel pixka bat zabaldu genituen Erribera kalean.

Baina hori ez da egin dugun ekimen bakarra. Bi irteera egin ditugu arraldera galipota biltzera, eta deialdiek erantzun arakastatsua izan zuten.

Hala ere, salaketak gorabehera egoerak berdin jarraitzen du. Noiz arte?

KOSTA GARBI BATEN ALDE TXAPAPOTERIK EZ!!

AURTEN ERE EBROKO ZINTZURRETARA

Joan den urtean bezala, aurtengoan ere Ebro alderako bidaia antolatu dugu. Maiatzaren 31ean eta ekainaren leian izango gara Ebroko Zintzurretan eta irteera maiatzaren 30ean egingo dugu, iluntze aldera. Autobusean bertan egingo dugu lo. Natur irteera honekin gozatu ederra hartu nahi duenak telefono zenbaki hauetan eman dezake izena:

943-860188 Xabi
943-861138 Iñigo

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza

OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Ttipi-ttapa, ttipi-ttapa... KORRIKA!

Euskara

BESTE ZERBAITEN gainean idazteko asmoa neukan (badakizue, hizkuntza kontu aspergarri horiek...), baina ez, Korrika egin berri dut Gasteizen, eta saltaka (eta saltoka) nembilela burutik pasa zaizkidanak botako dizkizuet jarraian.



Ibon
Manterola

euskalduna dugun bitartean (bale, batzuentzat gehiago, besteentzat gutxiago), Gasteiz, ez da batere euskalduna, etorri eta ikusi-entzun besterik ez daukazue. Ba gaur, apirilak 10, a ze giroa zegoen "Vitorian"! Zumaian denetarik baginen, Gasteizen oraindik eta "nahasketa" haundiagoa zegoen: haur-gazte-heldu eta bestelakoez gain, hartxen dugu pote bat?, nahi duzu garagardo ala kalimotxo?, korrika egin dut mogollon, eta antzera hitz egiten duten euskaldunak; umeak, funtzionarioak, "betikoak", kirolari itxurakoak. Eta asko eta asko, erdaldunak

Hau ikusita, saltaka eta arnas estuka nembilen bitartean neure buruari galdetu diot ea zenbateraino garen Zumaiko korrikalariak eta Gasteizkoak "euskaldunak", denok batera "euskaldunak". Bestela, nola ulertu zumaia euskaldunak erderaz jotakean entzutea? Nola esango diogu ba gasteiztar-funtzionario-euskaltegiko ikasleari euskera ikasi behar duela? Euskaldunak erdaldunei euskaltegietako bidea erakutsi euskaldunak beren artean erdaraz ari direnean?

Ikusten duzue, Gasteizen Korrika egiteak zer pentsatua ematen du. Badakit Gasteiz ez dela Zumaia, eta ezin direla konparatu...baina ze arraio, ez al dugu ba askok eta askok, han eta hemen, gure burua euskaldun eta euskaltzale sentitzen? Euskera ez al da bat eta bakarra gure herrian eta "Vitorian"?

HEMEN GAUDE EUSKERAREN ALDE!
EGUNKARIA AURRERA!

Aurreko jaian (apirilaren 6an) Zumaitik pasa zen Korrika 13, eta ikusi genuen nolako festa giroan bota genituen gure izerdi tantunak. Bereziki polita iruditu zitzaidan Erribera Kalean "ika-ika-ika...hemen dator Korrika!" eta antzeko oihu eta aldarrikapenak entzutea. Jendetza ginen, umeak, gazte txoak, ez hain gazteak, helduak; batzuk galtza bakeroe-kin, besteak kirolari itxurarekin, eta igandeko erroparekin ere bai baten bat; ikasle-irakasleak, tailerreko langileak, bizi osoan lanerako buzo bat inoiz jantzi gabekoak; "betikoak" asko, "ez hain betikoak" beste asko... era guztietako zumaia elkartu ginen euskararen alde saltaka!

Eta gaur, idazten ari naizen egunean, apirilak 10ean, Gasteiztik pasa da euskararen aldeko izerdi-arnastu festa. Ez dakit inoiz honen gainean pentsatu duzuen, baina Korrika ez da berdin egiten Zumaian eta Gasteizen. Nekatu igual-igual, eta hurrengo goizean "aujetak" ere berdin-berdin. Baina Zumaia herri



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Ricardo J. Azcue Yeregui

Abokatu + Aseguruak
Finan Administrazioa

bonin aguirre 4. behe
20.750 zumaia (giuzkoa)
E-mail: rjzcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862748



* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Erroa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670



Kamiyo Baztarrrian

EZ DEK HARRITZEKUA! Hik egiteko ez dek asko!...
 Badakit horrela hasiko zaretela lerro hauek amaitu orduko.
 Izan ere, oraingoan ere gertatu zait beste aldrebeskeri bat.
 Aluga-se jarri nion txokoari izena, eta bere omenez aurreko
 batean pare bat kotxe alugatu, eta fidantza gisa kreditu
 txartelaren datuak eman ondoren hasi zen abentura.
 Honezkerok aterako zenituzten kontuak: ni autoestima
 handikoa bai, baina bi kotxe neure kabuz errentan hartzeko
 adinako buruarina ez naizela. Hamar lagun ginen, hamar
 sabel asetzeko, hamar buru pentsatzeko, hamar..., hamar...,
 baina gidatzeko karnetak: bi. Alegia, lerro hauen sinatzaileak
 bere burua bolantearen aurrean ikusi zuela di-da batean; eta
 alboan geldirik lau: San Erasmusek zainduko al nau!
 Serio demonio jarri eta han sartu ginen kotxean. Urdina zen
 gurea, eta grisa besteena; modelo eta markarik ez galdetu,
 nik koloreka sailkatzen ditut-eta. Sinplea naizela? Ez dakit;
 praktikoa bai, behintzat. Han geunden bostok; eta beste
 bostak gure atzean noiz abiatuko zain. Azaldu beharra daukat
 ordea, ez geundela Oikiako plazan, ez, Lisboako erdigunean
 geunden, Korteinglesaren aurrean. Sekulako trafikoa zebilen
 errepidera egin behar genuen zanga, eta gu ez beste guztiak
 portugesak zirela argi zegoen (beraien txofertzarako
 "askatasunarekin")! Egoerak bazeukan bere arrisku punttua,
 bai: bizkaraldea eta besapeak izerditzen hasi zitzaizkidan,
 eskuak ere bai, eta bolanteari eustea gero eta zailagoa zen,
 irratia martxan hasi zen inork eskatu gabe txunta-txunta-
 txunta nazkagarri batekin, albokoaren bozinak pi-pi-pi,
 eskufrenoa ezin bilatu, izerdia, tentsioa, pi-pi...#|@{Ç eta
 halako batean rast sartu ginen zurrunbiloan! Eta beste
 kotxeei jarraituz, eta intuizioari planoari baino kasu gehiago
 eginaz, han irten ginen asfaltoaren erreinura, alegia
 autopistara. Balekoa!
 Bost hilabete eta gero, Lisboatik kanpo geunden Portugalgo
 parajeak ezagutzeko prest. Tejo ibaiaren ibilbidea ardatz gisa



hartu, eta barrurantz joatea genuen ideia. Alentejo
 eskualdeak hartzen ditu lur horiek guztiak, eta benetan diot:
 zoragarriak dira. Santarrem, Nisa, Marvao,... eta abar luze
 batek hiriburuarekin zerikusirik ez daukan paisaia eta jendea
 erakusten dute. Alentejar jatorrei galdezka iritsi ginen behar
 genuen lekura.
 Baina noski, nahiz eta haiek eskuzabalak izan, guk igualeko
 sateliteak izaten jarraitzen genuen. Bagindoazen mundua
 konpondu nahian hitz eta pitz, ekonomia, latifundismoa,
 kultura,... eta bat-batean kontxo: zer da piztuta dagoen argi
 gorri hori? Ba ez, ez zen putetxe bateko letreroa. Ez.
 Gasolinaren deponitoaren pilotoa zen! Auskalo zenbat
 denboran gentozen deponittoa gori-gori genuela, orratza R
 gorriaren zeharo azpitik baitzebilena... Eta eskuak berriro
 izerditan, nik albokoari begiratzen nion, esanaz bezela: "Ta
 orain zer?" Berak patxada osoz: "zuk azeleratu beldurrik
 gabe!" Eta nik neure indar guztiarekin saka! Saka, nik
 sakatzen nuen palanka, baina gure kotxe urdinak to! Ez
 zegoen beste erremedioaririk, erdian baino hobeto izkina
 batean. Eta halaxe bukatu genuen kamiyo baztarrrian, atek
 zabaldu ta elkarri begira. Eskerrak alentejarrei!

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuatarako departamentu

Ohizko tratamenduez gain:



- Laser bidezko depilazioa
- Mikropigmentazioa
- Tatuajeak

Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g Tel. 943 861322

San Telmoko Zumaiko koadrillei

AI GAZTIAK, gaztiak!! Hemen dia berriz'e nere izenian iten dian festak. Aurtenguak zenbagarrena dian ez takat arrastoikan'e. Nere sekretayuai galdeu berko diyot. Esaten ai nitxan bezela, hemen dia santelmuak. Eta urtero-urtero buelta hontan trixte jartze naiz. Badakit oso normala ez tala norbere izenian zelebrautako festetan trixte eotia, baina halaxe eoten naiz. Holako eonezin bat ipintze'zat tripa barrenian... Zuek gaztiak hor ibiltze'zeate kalia gora-kalian bera, baina apostu ingo nuke ni zein naizen inork ez takizuela. Ta hori hola dala pentsatzia oso gorra iten'tzat. Baleikekuak orri hau (orrialde xaxtar bat bakarrik) laga diatela ta, uain ez'tizuet nere bizitza goitik bera ikasteko eskatuko.

Baina e'tzan txarra izango kaskezurrian dakaten idea hau aurea ematia: udalak nere bizitza kontatze'un liburu txikiyag tabernetan banatzia. Doain. Proposamen seriyua in izan banyiye, seguru onartuko ziatela, hauteskunde garaya izanda. Baina esate nun bezela, ideia bikaina iruitze'zat. Hortxe, Erribera kalia, gazte danak nere liburuxka hartu ta irakurtzen. Earra kuadrua.

Trixtura horrek badu beste motibo bat'e, ta uain'e gaztiak, zuek tartian. Ondo iruitze al'tzazue santelmotako erropak urtia jun ta urtia etorri amak plantxatzia? Geo, gainea, eskerrak emateko, lenengo tabernan sartu ta likidon batekin mantxa earra in. Hori dana gutxi ez, ta etxea erretirautakuan (batek daki ze'ordutan!!) erropa bazter batian bota, ta usai txarra etxe guztiyan zabaltzen laga. Zikinak zeate ba!!

Halare, zikinkei haundiyena prozeziyoa ez jutia da. Zuek gaztiak zenbat aldiz jun'tzeate goizeko lenengo prozeziyoa? Geyenak behin ez. Hoixe izatea festetako pulamentuzko momentu bakarra. Danak nere atzetik, txintxo, txintxo (ta sekulako ajiakin).

Ah, ta bukatu baino lehen beste gauza bat: ezta okurritu're kofraiko bandera lapurtzia, geo etxian kortinik gabe eon bear det eta. Baakit lapurra zauztar bertsolari bat izan'tzala, baina baezpare abixatu ite'izuet.

Beno, gaztiak, hauxe zan dana. Aber hurrengo urtetako zeeze ikasi, ta nere tristura alaitze'zuen. Hala bedi. Amen.




Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

EGOKI



Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

Futboleant jokatzeke arra kendu ezin

Zumaiako Futbol Taldean aritutako hainbat jende beteranoen elkarte sartzeko lanetan ari da.

Badira kirolari lotutako esaldiak, topikoak esaten zaizkienak. Horietao batek honela dio: maila ona izan zuenak urteak pasataoan ere maila bera mantentzen duela. Zumaiakon aritutakoan artean denetik izango da, baina urteak denentzat berdin igaro dira. Horretan ez da zalantzarik. Ba, futbola laga zutenetik urte batzuk igarota, futbol zelai berriaren inaugurazioan, garai bateko jokalaria bildu eta partida jokatu zuten. Hortxe hasi zen dena. Berriz futboleant

jokatzeak tripa barreneko arrak esnatu, nonbait, eta harrez gero makina bat partida jokatu dituzte.

Jendea gogoz dagoela ikusita, elkarte osatzea erabaki zuten. Zumaiako Futbol Taldeak talde eta lan asko duela kontuan izanda, elkarte independientea sortzea erabaki zuten. Hori bai, Zumaiakorekin duten harremana ez da etengo, beti ere laguntzeko prest izango direlako.

Apirilaren 12an egin zuten Batzarrean estatutuak egitea onartu zuten, eta orain horretan ari dira. Behin estatutuak egin da, berriro Batzarra egin, eta orduan sor-

tuko da ofizialki elkarte. Prozesu hori dena datorren hilerako eginda egongo dela espero dute.

Oraindik erabaki ez badute ere, elkarte sartzeko badirudi ezinbestekoa izango dela Zumaiakon aritutakoa izatea, edo jokalaria moduan, edo zuzendaritzako kide bezala.

Jendea ezagutzeko aukera, web orria...

Zelai berriaren inaugurazio egunean jokatu zutenetik, esan dizuegu makina bat partida jokatu dituztela. Kirola egiteaz aparte, bazter guztietako jendea eza-




Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



GAZTEEN ERROPA

ZALLA
Taberna - Erreteria

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

gutzeko aukera eman die. Batzuk aipatzeko eskatuta Alfarokoak aipatu dizkigute. Sekulako harreman ona dute beraiekin, eta orain dela hilabete eskas Zumaian jokatu zuten elkarren kontrako partida. Errioxarrak omen dira ondoren antolatuta daudenak, web orri eta

guzti. Ba, zumaiarrek ere badute interneten web orrialdea egiteko intentzioa. Eskolen laguntzarekin orri dotoreena egiteko lehiaketa antzekoa antolatzeko asmoa dute.

Jendea ezagutzen jarraitu, partidak jokatu, eta herriko festetan zerbait anto-

latzea dituzte etorkizunerako asmoetako batzuk.

Beraz, badakizue, Zumaiakon aritutakoak bazarete badakizue nora jo. Hori bai, partidak jokatu baino aste pare bat lehenago bizpahiru entrenamendu egitea ezinbestekoa omen da...

Neskak nagusi bateletan

Gipuzkoako Batel Txapelketan Aita Mari Arraun Elkarteko haurren eta kadeteen nesken ontziak txapela lortu zuen.

Pasai San Pedron jokaturako estropadan Orio izan zuten parez pare, baina azkenean hiru segundoko aldeari esker zumaiarrek izan ziren txapeldun. Ilunbe, Getaria, eta etxeok askoz atzerago laga zituzten. Banderaz gain beste sari bat ere ekarri zuten zumaiarrek, Ane Aizpuruari eman ziotelako ziaboga onenaren saria. Bejondeiela!!

Mutiletan denak ados jarri, eta laugarren postuan amaitu zuten kadeteek, gazteek eta seniorrek. Orain trainerilen denboraldiari buru belari ekingo diote Zumaiako arraunlariek. Gazte mailan ontzi bat arituko da, eta seniorretan bi.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAI A MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 943 143143

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

GARAI BATEKO SANTELMOAK

San Telmoak gainean ditugun honetan arrantzaleen artean jaio eta hazitako Arritxu Zubiarekin, Silvestranequarekin, egon gara hitz egiten. Aspaldiko San Telmoak nolakoak izaten ziren eta beraiak nola bizi zituzten kontatu digu. Hiru egunetako festa izaten omen ziren beraien etxean eta egunak merezi zuen bezala langosta jaten zuten. Hona hemen Arritxuk kontatutakoak:

Leno maiñelak bakarrik iten zuen jai, len len oso aurrian, urtietan aurrian. Maiñelak gabian itsasoa jun eta goizian etxea, barku handiak etzian, despeskako barkuak zian, eta egun hoxetan jai iten zuen. Gerora ere tailer batzuek eiten zuen jai ta beste batzuk ez, Karmelok etzun iten jai, azkenengo azkenegorarte Karmelok segi iten zun ta prozeiyua betik gora zijuanian kaldereruak zea jotzen zuten: pomm pomm pomm, aitzeko beaxek lanian aiziala.

Urte batian, ez dakit gure aitta presidentia eon tzanian edo aurreotikan, intzan akuerdioa ayuntamien-tuan ama birjiña Arritokietakuan eguna ta San Telmo eguna ere jai itia, herrixagatikan, herrixa beak jai itia, harrezkeo jai iten da.

Baiña lenoko San Telmuak diferentiat zian..., nahiz ta oain erropa honekin-eta da vistoso. Urtero jartzen zuten programan alkandora ipintzeko baiña inork etzuen jartzen. Goizian dantza izaten zan kofrai azpizan, oain ez dakit ingo dan, urte batian umiak jazten hasi giñen ta arratsaldian jende gehiago jantzi zan, gerora ikusten dezu nolako festak.

San Telmo eguna astelehena izaten zan, geo maiñelak iten zuten bigarrena, porque bestiak lanera jutun zian, meza izaten zan San Telmon oain bezala, difuntuena, geo mezetatik bajatu ta olarru zopa geo ayuntamientoa bandararekin dantza itera ta giltzak entregatzera, Kofraixako presidenteak egun bateko alkatetza izaten zulako. Geo Parrokiko ateko aurrera aureskua dantzatzera. Orduan antxoa kontuakin maiñelak diru pixkat zuten eta harro harro ibiltzen zian.

Sakristaua Mariano zan, xakunekua, xakunekuak playeruak zian, sasoi hartan playan kabinak zian ta hoi-xek igo ta bajatu iten zuten, ta hoxek dirua setienbrian, San Miele-tan. Ta maiñelak harro harro haxei burlaka San Telmo bigarren-guan ta haiek: San Mielak etorriko dia, San Mielak etorriko dia.

Jaixan hamarrakarte musika, banda edo orkestina zar bat zan eta hamarretan akabatu eiten zan, jaixan getaiar asko etortzen zian eta gu penakin etxera hurrengo egunian prozesiyua izaten zalako Santisimüena, gaztiak oain ez dia jutun baiña hori gauza sakratua da, ezin leikena galdu. San Telmo egunian, bigarren-guan eta hirugarrenguan musika hirurakarte izaten zan.

Orduan pixkat mozkortzen zana bihatzakin markatzen zan eta gaur es una honra.

Urte batian banda gabe San Telmo kantatzen jun giñan prozesiyuan bandik gabe ta hurrengo urtian atzea Gajate anaiak atea zian,



gogoratzen naiz gure amak nola esan zuten: jesuss, hori da hori txapa hotsa. Galtzear ere izan zan, zeñek iña etzeolako.

Beste gauza politxa "saliño" zan, sanga taldea (dantzari taldea), sakixakin dantza eiten zuten, San Telmo kalekuak, oaingo aldian lehen beste hermandade bat zeon eta hori orain ere kalle San Telmo kalle San Telmo dala, Zumaixan hermanatuen dagoen kalia da baiña hala ta guztiz ere leno zan una cosa de miedo.

Regatak ere iten zian, ortizineko tiñetan (egurrezko baldia) indako regatak, zubi handiraño eta buelta tiñetan, antzarrak ere izaten zian Lekeition bezela, errixo txikiyan, Yeregiko tailerrak zeuden tokian, burni batzuk bazeuden barkuak-ta bajatzeko han pegatu eta moilan ere pegatu eta dale que te pego oso politxak izaten zian.

KOFRAIXA

Justaneko taberna eta etxe guztia kofraixana da. Hantxe bajelan (kofraixa terrazan azpitan dagoen termometroa) Zuloaganekuak barrika jartzen zuten. Maiñelen taberna zan Justa, pena izango zan kofraixa galtzia, ta azkenian galdu eingo da lotsagamente uzten badiegu. Oaindik ez dakigu, el día de mañana, gure bilobek barkua eukiko duten, hainbeste kostatutako gauzak hola galtzia, ez du merezi galtzia, hor eon deixela..."Cofradía de San Telmo de los mareantes de Zumaia".

Gure antzinako zarrek makiña bat izerdi bota behar izan zuten kofraixa eiteko eta gure lana da gure aitonek ein zutena sailtu eta maitatu eta gure gazteei erakutsi zer da, nola eiten diren gauzak. Ba ote degu eskubiderik ondo eindako gauzak desegiteko? Gure aitona baino eskasagoak ote gara gu? Oraindik ere emango ditu bere fruitu berrixak gure kofraixak.

SAN TELMO MARTXA

Hona hemen Arritxuk Salbadorai, San Telmoko serorai, aitutako eta osatutako San Telmotako martxa:

Telmo Deun zera zu beti
Zumaiarren Zaindari
Zaindari

San Telmo Maita
erruki zaite
guk denok zar da gazte
zure babesa degu eskatzen (bis)

Zu zera beti
Gure oroigarri
Gure Patroi ta
Gure Zaindari
Zaindari

Talaia dezu Algorri
itsas gizonen pozgarri
lagunduaz alkarren
anaitasuna izan dezagun goigarri

San Telmo Maita
erruki zaite
guk denok zar ta gazte
zure babesa degu eskatzen

Zu zera beti
gure oroigarri
gure Patrio ta
gure Zaindari
Zaindari

Itzungo arkaitz ganian
agertzen zera miragarria
mariñelaren aita goxoa
izan zaite zu guretzat errukiz betia (bis)

Talaian zaude beti zu
itxas gizonak zaintzen dituzu
ekaitz gaiztoetan lagundu gaitzazu
azken orduan ez gaitezen betiko galdu.

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083

LEIZE

taberna

Juan Belmonte, 6

taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

Errua kukuarena da

O

raintxe kontatuko dizut gertatua, eta berehala ulertuko duzu nik ez dudala errurik izan, errua kukuarena izan delako.


Urteroko ohitura daukat udaberria iristearekin batera patrikan soz batzuk hartu eta mendira abiatzea. Kukua entzun asmoz abiatzen naiz.

Ku-ku egiten du, badakizu. Ez al duzu inoiz entzun?

Ederra da. Zinez da ederra Kukuaren lehen kantua entzuten duzun unea.

Ez naiz gizon aberatsa, ez naiz inoiz izan halakorik, eta lana ugari egin arren zorrak ditut gizaki guztion antzera. Ordaindu beharreko zorrak. Horregatik abiatzen naiz urtero udaberria-ekin batera mendira, Kukuaren bila, bere lehen kantua entzun asmoz.

Baina aurten Kukuak ez zuen abesten. Ez zuen niretzat abestu nahi.



Asteak joan, eta asteak etorri, eta ni mendira abiatzen nintzen astebururo patrikan diru pixkat hartuta.

Baina Kukuak jai.

Emazteak lasai egoteko esaten zidan, hori superstizio hutsa zela, baina nik banekien ez dela horrela. Urtero entzun dut Kukuaren kantua, eta urtero ibili naiz lasai diruz.

Emazteak ez ninduen ulertzen.

Udaberria aurrera zihoan, eta ez nuen oraindik Kukurik entzun. "Nola egingo diot aurre urteari?" galdetzen nion neure buruari. Egoera lehenbailehen konpondu asmoz, jai egun batzuk eskatu nituen lanean. Familiako arazo bat jarri nuen aitzakia, eta horrela, egunero abiatzen nintzen mendira. Belarriak adi-adi izaten nituen, Kukuak nondik joko tentsio batean ibiltzen nintzen, eta ahalik eta soinu gutxien egin asmoz ia arnasik ere ez nuen hartzen. Baina alperrik. Kukuak ez zuen niretzat abestu nahi.

Menditik etxera itzuli nintzen iluntze batean negarrez topatu nuen emaztea. Nagusiak deitu zidala, nire arazo familiarak zertan ziren jakin zuela eta nahi nituen egun guztiak jai hartzeko esan omen zuen. Lanera ez itzultzeko, alegia.

Nagusiak ere ez ninduen ulertzen.

Emaztea lasaitu behar izan nuen, gauzak konponduko zirela, ni mendira patrika beteta joaten nintzela, ez kezkatzeko, kukuak abestu orduko dena konponduko zela, nik lana berreskuratu eta dirua barra-barra jasoko genuela.

Baina emazteak ez ninduen ulertzen.

Kukuaren habia bilatzea erabaki nuen orduan. Nire mendi bueltatan beragandik urrun ibili ote nintzen kezkatuta, bada ezpada arazoaren muinera zuzenean jotzea erabaki nuen.

Egunak eman nituen basoak zeharkatu eta kukuaren habia aurkitu nahian, eta asko kosta arren topatu nuen, bai. Pinu



"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91





baten azken adarretan zegoen, erdi ezkutaturik, baina ederki ikusi nuen nik.

Gau eta egun, pinuaren azpian gelditu nintzen. Emaztea mendira igotzen zen tarteka janari eta urarekin, eta etxera itzultzeko erregutzen zidan orduan, zorutzen ari nintzela eta ezin zuela gehiago jasan. Nik lasaitzeko esaten nion, kukuak bazekiela ni han nengoela, eta ezingo zela isilik betirako egon.

Janaria ekartzera igo zen horietako batean esan zidan banketxeak etxea kendu zigula, kreditua ordaintzen ez genuela-eta. Berak azaldu omen zion zuzendariari gure egoera, gizona arazoa konpondu nahian zuela, baina hark ez omen zuen serio hartu.

Bankuko arduradunak ere ez ninduen ulertzen. Egoera behartzea erabaki nuen orduan.

Kukuak ez bazuen nahi bere borondatez abestut, halabeharrez egin beharko zuen. Zuhaitzera igo eta Kukua harrapatuko nuen. Niretzat abestuko zuen, torturatu behar banuen ere.

Emaztearen malkoei muzin egin, eta nire sasoi onenarekin abiatu nintzen pinuan gora. Kukua sumatzen nuen bere ada-



rrean, urduri, niri begira. Gora begiratzen nuen bakoitzean bere begi txikiekin egiten nuen topo, eta ezinezkoa zela banekien ere, irribarrez ari zela ere esango nuke.

Bere lumak ukitzera iritsi nintzen. Heldu ere ia heldu nuen lepotik, baina orduantxe galdu nuen hanka, eta orduantxe amildu nintzen zuzenean goitik behera, pinuaren azken adarretik lur gogorrera.

Emazteak deitutako laguntzaren zain gora begira egon nintzen, mugitu ezinik. Pinuaren azpitik Kukua ikusten nuen bere adarrean, begira. Oraindik ere irribarrez ari zen. Nire minari, nire elbarritasunari irribarrez. Eta irribarrez jaitsi zen airean, hegoak zabalduta nire bularrean kokatzera. Nik ez nuen sentitzen, orain ere gorputzik sentitzen ez dudan bezala, baina han zegoen. Eta bere moko txikia nire belarrira hurbilduz, irribarrea zabalduz esan zidan: "Ku-ku".

Orduan konturatu nintzen Kukua zela ni ulertzen ninduen bakarra. Eta lurrera erortzean patrikako diruak airean galtzen ikusi ninduenean erabaki zuela abestea, nire miseriari abestea. "Ku-ku" esan zidan. Nik bai, nik ulertzen zaitut.

Josu Waliño

AMETZA
taberna

Santiago auzoa, 4
tel: 943 143370



Azkue Autoak

Tel: 943 861433
Estazioko kalea, 19 Faxa: 943 861067

Antonio Etxabe



*Gizonezkoen
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20/50 ZUMAJA • Tel. 943 861391



INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN
ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel/Fax: 943 143 102 - Juan Belmonte, 2 baxo - 20750 ZUMAJA

Laguna gogoan

LAST ORDERS "road movie" bat da, errautsen kutxa batek eta lau lagun zaharrek protagonizatua.

Lau lagun zahar gogokoen duten tabernara joango dira. Giro tristea sumatzen dute tabernan, eta lagunak ere nahiko gogogabe agertuko dira. Ray, Vic eta Lenny han elkar-tu dira Jacken, lagun hil berriaren, azken gogoia betetzeko. Jacken ohoretan topa egin eta Margate herrira joateko prestatzen hasi dira, bertako moilatik jaurtiko baitituzte lagun minaren errautsak.

Kutxa barra gainean dutela, edaten ari diren pinten tamaina berekoa dela ohartuko dira. Momentu horretan, auto baten klaxona entzungo da. Vince da, Kankailu izen-goitiaz ezagunagoa. Jacken semea da, bigarren eskuko autoen saltzaile arrakasta-

tua. Luxuzko Mercedes urdin batean eramango ditu lagunak. Jacki agur esan behar badiote, izan dadila behar bezala.

Jacken emazteak, Amyk, Margaterako erromesaldia ez egitea erabaki du. Izan ere, beste bidaia bat egin behar du, hau ere oso garrantzitsua: June bisitatu behar du, alaba minusbaliatu psikikoa.

Bidaia hasi eta koadrila iraganean murgilduko da. Lagunek Jackekin bizitako abenturak gogoratuko dituzte. Nahi gabe, misterio hunkigarri batekin egingo dute topo.



Last Orders

(2001,

Erresuma Batua)

Zuzendaria eta gidoi-

laria: Fred Schepisi

Fotografia: Brian

Tufano

Musika: Paul

Grabowsky

Aktoreak: Michael

Caine, Tom

Courtenay, David

Hemmings, Bob

Hoskins, Helen

Mirren, Ray Winstone

Maiatzak 8, osteguna,

22:15ean

(Emakumeen eguna)

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi

JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Z

Zumaia Hotela



Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



Kontzientzia katolikoari amen

SS-EK ARMADAN sartzera “gonbidatu” arte, Kurt Gernstein kapitainak Osasun Institutuan egin du lan, desinfekzio aditu lanetan. Ejertzitoan, “Desinfekzio Sailean”, teknikari kimiko lanak egin beharko ditu. Gas-ganberetan erabiltzen den Zyclon B pozoiaeren emaitzak hobetzera bultzatzen dutenean, piztiak hiltzetik gizakiak hiltzera pasa dela konturatuko da.

Aurretik, bere ilobaren erraustak jaso zituen. Psikiatriko batean zegoen eta bazirudien arnasketa-arazoengatik



Amén.
 (Amén. 2002, Frantzia)
 Zuzendaria: Costa-Gavras
 Gidoilaria: Costa-Gavras eta Jean Claude Grumberg
 Fotografia: Patrick Blossier
 Musika: Armand Amar
 Aktoreak: Ulrich Tukur, Mathieu Kassovitz, Ulrich Mühe
 Maiatzak 22, osteguna, 22:15ean (Emakumeen eguna)

hil zela. Halako batean, “Gupidagatik hilak” izeneko kanpainaren berri etorriko zaio: gizartearentzat guztiz “baliogabeak” direnen deuseztatzea edo, bestela esanda, eugenesia da kanpaina horren helburua.

Nagusien planekin ikaratuta, eta katoliko ona denez, Elizako hierarkiako zenbait goi-karguri arazoaren berri emango dio. Ez du arrakastarik izango, ordea, Riccardo Fontana jesuita gazteak salaketa entzun arte. Jesuita hori Pio XII.a Aita Santuaren kontseilari baten semea da. Bi pertsonaia hauek, bata benetakoa –bere informeen bitartez genozidioan hildako pertsonen kopuru neurrigabea frogatu zen– eta bigarrena fikziozkoa, nazien makina hilgarria gelditzeko batuko dira.

AUTO-ESKOLA

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
 - Praktika eta azterketak Azpeitian
 - GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAIÀ

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

SANTELMOAK 2003

OSTIRALA 25

19.00etan Odieta pelotalekuan, San Pedro Txiki eta Txikiak eta herriko ikastetxeetako dantza eskoletako haurren jaialdia.

21.00etan San Telmo kalekoen anaiarteko afaria

22.30etan Aita Mari aretoan, Santelmatoko bertso jaialdia, "Bertso Trama". Bertsolariak: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Xabier Silveira: gai-jartzaile lanetan, Jon Maia.

LARUNBATA 26

9.00etan hasita Itzurun hondartzan, Zumaiko IV. Surf eta Paipo txapelketa

11.00etan Udal Txistulari Bandaren kalejira

11.45etan San Telmo Ermitaren parean, Telmo izeneko herriko seme eta kanpotik hurbildakoen topaketa; jarraian bazkaria eta egunpasa.

12.00etan San Telmo ermita bertan, Txupinazoa jaietako hasiera emanaz.

Jarraian Musika Eskolako Trikitilariak lagunduta, Jeitsiera.

Ondoren San Telmo kalean, Itxas Gain elkartearen parean, Hamaiketako. Tarte alaituz, Bertso Eskolako ikasleen eta Trikitilarien saioak.

12.30etan Paol muturrean, Santelmatoko I. go Bela Saria.

Ordu berean Gazte kuadrilen kalejira herrian zehar, Elektrotuna Xaranga Elektroak lagunduta.

13.00etan Kofradiako plazatxoan, herriko ikastetxeetako Dantza Eskoletako haurren esku, Euskal Dantza ikuskizuna.

14.30etan Frontoi Txikian, Bazkari herrikoia. Bazkalondoan, koadrila arteko jolasak eta Postre Lehiaketa

18.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan hasita, Gazteleku txarangaren kalejira.

22.00etan Odieta pelotalekuan, Xixtera partiduak, XIV. San Telmo Sariaren finalerdia.

23.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan, Ene Bada taldearekin dantzaldia.

24.00etan Erribera kalean, "Dragqueenclovnshow" kalejira berezia

IGANDEA 27

08.00etan Kofradian, Txokolatada

09.00etatik 12.00etara Herri mailako Arrantza Lehiaketa, Talaipetik Paol muturrera bitartean.

11.00etatik 13.00etara IX. San Telmatoko Scalextric txapelketa Odiatan

11.30etan Kofradian, Arbustain Motorzale elkarteak antolatuta, Udalaren eta Kutzaren babesean, Hamaiketako herriko itsasgizon zaharrentzat.

Ordu berean XABI ETA IRKUS trikitilarietako kalejira herriko kaleetan.

12.00etan Haurren Tanborrada

16.00etatik 19.00etara Scalextric saio berriak.

17.00etan Buruhaundi eta Erraldoien kalejira

18.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan haur antzerkia, HORTZMUGA taldearen "Klaketa"

18.30etan INCANSABLES txarangaren kalejira kaleetan zehar.

22.30etan Tanborrada Berezia Gauerdian Kofradia Bandera Igoera, Miguel Angel Osa arrantzale izanaren esku. Bertan Arbustain Motor elkarteak urtearen oroimenez bere txapel oroigarria oparitutako dio.

01.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan, dantzaldia EGAN taldearekin.

Eta herriko kaleetan zehar,

INCANSABLES txarangaren doinuak.

ASTELEHENA 28, SAN TELMO EGUNA

08.00etan Meza eta ondoren Jaunarekin Prozesioa eta Gaisoen Jaunartzea.

10.15etan Oriturazko Prozesioa San Telmoren ermitara

10.30etan Meza Nagusia, itsasoaren aurrean otoitza eta Parrokiara itzulera. San Telmoren erlikia gurtzea.

Ondoren, agintari eta gonbidatuei hamaiketako bat eskainiko zaie Kofradian

12.00etan SUGARRI txarangaren kalejira.

17.00etan haur festa Eusebio Gurrutxaga plazan: POTXIN eta PATXIN pailazoekin.

17.30etan Odieta pelotalekuan, Profesional Mailako Eskuzko Pelota Partidua:

TITIN III - ZEZEAGA / CAPELLAN - LASA III

18.00etan SUGARRI txarangaren ekitaldia plazan, eta jarraian herriko kaleetan zehar.

19.00etan Kofradiako plazatxoan, erromeria LUHARTZ taldearekin.

22.30etan LUHARTZ taldearen saio berriak.

ASTEARTEA 29

08.00etan Hildakoen aldeko meza

17.00etan frontoi txikian, haur antzerkia "Iratxoan Magia"

MAIATZAK 1, OSTEGUNA

11.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan, "Buruhausgarriak": buruari eragiteko 30 joku, 8tik 14ra bitarteko gaztetxoentzat batipat.

Egunean zehar Zumaiko Tabernarien elkarteak antolatuta: txakolin dastaketa, trikitixa eta bertsolari kalejira,

musika ekitaldiak... (Ikusi egitaraua).

16.30etan "Buruhausgarriak": jokoei ekiteko saio berri bat.

OSTIRALA 2

17.00etan Gaztetxolan, Txokolata Jaialdia

18.00etan Basadi auzategiko lanen amaiera ospatuz, ekitaldiak: haurrentzat txokolatejana, aurpegi margitzea eta Altxorraren bila jolasa, eta guztiontzat Sahieski erre jana eta erromeria.

22.30etan Odieta pelotalekuan, profesional mailako partiduak, pala eta xixteraz.

23.00etan Kontzertua: SIN OFICIO NI BENEFICIO eta KEN ZAZPI taldeekin.

LARUNBATA 3

Egun osoan zehar Egunkariaren herri batzordeak antolatuta ekitaldi ugari: Xingola festa, kalejira, bazkari herrikoia eta bazkalondokoak, Egunkariaren Portada... (Ikusi egitaraua)

11.30etan Haur Jolasak Larretxoko plazatxoan.

11.30etan Eusebio Gurrutxaga plazan, V.Olarrozopa eta Rana Txapelketak

Ekitaldia alaituz Elustondo Anaiak trikitilarien saioa.

12.00etan Behoko Plaza Abesbatzaren ekitaldiak Erribera kalean zehar.

17.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan, txotxongilo saioa: Antzezkiuna taldearen "Pinotxo"

18.00etan Fanfarre topaketa: ALDAZ GORA eta BIZNIETOS DE CELEDÓN fanfarreak arituko dira herriko kaleetan zehar.

22.00etan Odieta pelotalekuan, xixtera partiduak, XIV. San Telmo Sariko azken partiduak

22.00etatik 01.30etara Alondegian, Santelmatoko Diskoteka (12-16 urte bitarteko gaztetxoentzat)

23.00etan ALDAZ GORA eta BIZNIETOS DE CELEDÓN Fanfarreen ekitaldia Eusebio Gurrutxaga plazan.

Jarraian fanfarreen kalejira herriko kaleetan zehar.

IGANDEA 4

09.00etan Goizsoinua Hala Gera taldearekin.

12.00etan TRIKUAK txarangaren kalejira "Boney M" ikuskizuna aurkeztuz.

12.30etan Odieta pelotalekuan VI. Urrezko Aizkora Sariaren barne, ligila nagusiko frogak: Donato Larretxea eta Jose Mari Olasagasti.

18.00etan Traineru txoen estropada, XXI. San Telmo Saria.

Ordu berean TRIKUAK txarangaren ekitaldi berri bat.

19.00etan Kofradian, Etxabe Anaiak taldearekin, erromeria.

Ordu berean Zumaiko Futbol Taldeko "beterano"en esku, Sardinajana.

22.30etan Etxabe Anaien saio berri bat.

Gauerdian Banderaren jeitsiera eta Santelmoiei agurra.

IKASTAROA

Zumaian, Ubillos Musika etxean eskainiko da, Musika Patronatuak antolatuta.

Maiatzaren 9tik ekainaren 27ra izango da, 6etatik 8etara. Kurtso amaierako helburua kaleko saio txo bat eskaintzea litzateke.

Izenematea: Foronda kultur etxean (943-861056 eta foronda@zumaia.net)

Matrikula: 15 euro. Epea: maiatzaren 6a.

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia

ekin INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
ELEKTRIZITATEA, S.L.
TELEKOMUNIKAZIOAK

Erribera kalea 18 Behe - Tel/Fax: 943 143097

20.750 Zumaia ekin@ekin.es.com

Instalazte/lan/zerbitzu ofiziala

CANAL+ via
CANAL DIGITAL

Telmovis
Movistar
Movistar

ert
informatika

tresna digi
internet
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

DALAC
COMPLETOS

Larunbat arratsaldetan irekita!!

Ardantzabide Altzariak

Sukaldeak
Egongelak
Era guztietako logelak
Mahaiak
Ateak
Leihoak
Horma armairuak
Tarimak
Era guztietako arrotz lanak

Hego kalea, 4 (restaurioa) 5. pabilioia
Tel./Faxa: **943 86 25 32**
TAILERRA: Santixo auzoa40



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA

IBARGUREN

agustin

• Txarkuteria bikaina
• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak